

Aritz Arnaizek gose greba utzi du, 45 egun bete eta gero

Presoaren abokatuei debekatu egin diete bi egunetan bisita

Erredakzioa / Donostia

Osasun arazoak eraginda, gose greba utzi zuen atzo Aritz Arnaiz Laskurain Andoaingo euskal presoak. 45 egun egin ditu jan gabe, eta azken egunetan urdaileko eta hezurre-

tako minez zen, eta zorabioak ere izan zituen. Urtarrilaren 23tik zegoen Burgosko Ospitalean, eta Senideek salatu dutenez, mediku eta polizien aldetik presio handiak jaso dituzte. Abokatuak, baimena izan arren, ezin izan zuten atzo presoak ikusi.

JOAN den asteazkenean nabarmen egin zuen okerre-ra Aritz Arnaizen osasun egoerak. Dutxatik ateratzen ari zela zorabiatu egin zen, eta konortea galduta erori zen. Erizaina gelara etorri artean ezin altxaturik geratu zen, eta ondoren ikusi zuten glukosa asko jaitsi zitzaialako zorabiatu zela. Gainera, presoak hezurretako min handia zuela adierazi zuen, eta ohean geldirik izan da ordutik.

Atzo, gose grebaren 45. egunean, eta oso ahul sentitzen zelarik, protesta uztea erabaki zuen, senideek arratsaldean jakinarazi zuten. Gazura onartu zuen, eta zumo bat hartu zuen.

Hilaren 23an ingresatu zuten Aritz Arnaiz Burgosko Ospitalean, urdaileko min handia zuelako. Espetxetik ospitalera eraman zuten gauean bertan funtzionarioek patioan utzi zuten tarte batean, zero azpitik lau gradu zeudela. Gau hartan ezin izan zuen batere lorik egin.

Senideek salatu dute ingresatu zutenetik medikuek eta zaintzen zuten poliziek presio handia egin diotela presoari. Janaria eramaten zioten egunero gelara eta mehatxatu egiten zuten.



JUAN HERRERO / EFE

Aritz Arnaiz, Andoaingo udaletxera zinegotzi gisa ekarri zutenean.

Medikuek, gainera, hil egin-go zela esaten zioten.

Bestalde, azken bi egunotan ez diete abokatuei presoak bisitatzen utzi, nahiz eta beharrezko baimen eta agiriak eduki. Herenegun, Arantzeta Zulueta abokatuari Arnaiz dagoen gelako atean eragotzi zioten sarrera poliziek, Poliziako buruzagitzaren agindua hori zela esanaz. Burgosko buruzagitzan esan zioten Gobernuaren ordezkariaren baimena behar zuela. Atzo goizean, ordezkariatza horretan esan zioten baimen

berezi bat behar zuela, eta hori dela eta, presoak ezin bisitaturik geratu zen.

Burgosko ospitaleko mediku taldearen jarrera salatu zuten AABek. "Presoari emaniko tratuak eta Arnaizen senideek jasan behar izan duten presioak mediku taldeen izaera poliziala eta deontologia medikuaren kontrako jarrera erakusten dute", azaldu dute.

Bestalde, datorren astelehenean Andoaingo Udaleko ordezkariatza bat Burgosera joango da Arnaiz ikustera.

Martxoaren 22tik aitzina jukatuko dute Parisen 'Leoneko Afera'

Hur Gorostiaga / Baiona
PARISEKO Asisetako Gorte Bereziak heldu den martxoaren 22tik aitzina jukatuko du *Leoneko Afera*. 1983an Leoneko (Landak) errepide kontrol batean izan zen tiroketan, polizia bat hil eta bertze bat zauritu zen.

Aferako inkulpatu nagusia Jean Louis Larre Popo Iparretarrakeko kidea da, baina tiroketaren unean oinez ihes egin eta geroztik ez da bere berri gehiagorik izan. IK-k bere garaian azal-

du zuenez, poliziak "eliminatut" omen zukeen. Akusatuaren artean badago ere, auzia Larreren desagerpena aipatzeko unea izan da.

Gabi Moueska Lannemenezaneko presondegian dago egun, eta 16 urte darama dossier honetan inkulpatu baina jukatua izan gabe. Horregatik Strasbourgko Giza Eskubideen Batzordeak Frantzia kondenatu zuen 1998 urtean, eta 90.000 liberako kalteordaina galdegin zion.

Filipe Bidart 1988an sartu zuten preso eta gaur egun bizirako kondena betetzen ari da Clairvauxeko presondegian. 1997 urtean inkulpatu zuten afera honetan.

Ttote Etxebeste aldiz, 1988an sartu zuten preso baina atxilotetan poliziak bizkarrean emandako tiroaren ondorioz elbarriturik gelditu zen, eta 1993ko abenduaren 26an ateratu zen libre, Fran ois Mitterrand lehendakari ohiaren grazia presidentzialaren bidez.

laburrean

■ ETAre azken atentatua gaitzetsi dute Iparraldeko Berdeek, eta baita Espainiako Gobernuaren imobilismoa ere

IPAR EUSKAL HERRIKO Berdeak alderdiak gogorki salatu du Madrilgo atentatua. "770. biktimak 14 hilabeteko bake esperantzaren bukaera markatzen du. Atzerakada izigarria da, Espainiako herritarren eta euskal herritarren gehiengoaren kontrako ekimena da", adierazi dute Berdeek. Gisa berean Gobernuaren jarrera ere salatu du alderdiak, "jarrera desohoragarria atxiki baitu erabateko imobilismoarekin". "Gasteizen Gerry Adamsik ikusten ez badugu ere, Madrilen ere ez da Tony Blairik ageri", adierazi dute Berdeek.

■ Baketzeari buruzko mintegia egingo du Europako Legebiltzarrak apirilean

BERDEAK-EUROPAKO ALIANTZA LIBREA taldeak antolatuta, Euskal Herriko eta Irlandako egoerak aztergai izango dira datorren apirilean Europako Legebiltzarrean. *Bake prozesuak eta gatazka biolentoak konpontzeko ereduak* izenburuarekin egingo da mintegia, Eusko Alkartasunak atzo prentsa ohar batean jakitera eman zuenez. Izan ere, EA talde horretako kide da, eta Gorka Kn rr parlamentarioak eta Volksunie taldeko Nelly Maesek atzo eman zuten mintegiaren berri Bruselan. Apirilaren 7an hasiko dira eztabaiak, eta Euskal Herriko eta Irlandako kasuak aztergai izango direla jakinarazi zuten. Kn rr pozik agertu zen mintegi hori egingo delako, eta agerian geldituko delako Euskal Herriko gatazkaren konponketak Europari ere badagokiola.

■ LABeko Txutxi Ariznabarretaren kontrako zigor eskaera jaitsi du fiskalak epailetan

LAB-EK eginiko kontzentrazio batean Ertzaintzaren lana "oztopatu" eta ertzainei "aurre egiteagatik" epaitu zuten atzo Bilboko Entzutegian Txutxi Ariznabarreta, sindikatu aber-tzaleko komunikazio arduraduna. Kontzentrazio hori 1997ko otsailean egin zen Bilbon, HBko Mahai Nazionalaren espetxeratzea salatzeko. Hasierako bi urteko espetxealdi eskaera zortzi hilabetera jaitsi zuen atzo fiskalak. LABeko zuzendaritzako kide Txomin Lorcaren kontra ere zortzi hilabete eskatu zituen, ertzainek eskatu arren identifikatu ez zelako. Itziar Lopategiren kontra, berriz, 20.000 pezetako isuna eskatu zuen, ertzainak iraintzeaz akusatuta. Hiru sindikalisten abokatuak absoluzioa eskatu zuen. Ariznabarreta LABen aldizkarirako lanean ari zela argudiatu zuen, argazkiak ateraz, eta gainera, istilurik ez gertatzeko bitartekari izan zela. Lorca elkarretaratzearen erantzulea ez zelako ez zela identifikatu esan zuen; eta Lopategik inor iraindu zuenik ez dela frogatu.

■ Udalbiltza uzteko eskaerari ezetz erantzun dio Bilboko Udalak, eta Gipuzkoan atxikimen gehiago onartu dira

UDALBILTZA-N jarraitzea erabaki du Bilboko Udalak, PPK erakunde hori uzteko egin zion eskaera baztertuz. EAJ-EAK, EHk eta ICVk kontra bozkatu zuten, eta IU eta PSE-EE abstenitu egin ziren. PPK eskatu zuen Udalbiltzak Madrilen izaniko atentatua gaitzesten ez badu, Bilbok irten egin beharko lukeela. Bestalde, Getariako Udalak (Gipuzkoa) Udalbiltzarekiko atxikimen mozioa onartu du, eta baita Euskal Herriko udalen erakundeko kide izatea ere. Urnietan gaur aztertuko da gaia, eta Zestoan, berriz, Udalbiltzaren aldeko jaia egingo da larunbat honetan. Lehenbizi Udalbiltzaren aldeko mozioa onartuko da eta gero herri bazkaria egingo da jai giroan.

■ Madrilgo Gobernuaren «kolaborazio eskaintza» jaso izana salatu du AABetako Nafarroako koordinatzaile ohiak

FRAN BALDA Amnistiaren Aldeko Batzordeetako Nafarroako koordinatzaile ohiak Espainiako Gobernuarekin kolaboratzeko eskaintza bat jaso izana salatu du. Joan den asteazken goizean, gizon bat hurbildu zitzaion Iru eko Gaztelu plazan, eta Espainiako Gobernuak Lehendakariatza Ministerioaren izenean harremanak izatea proposatu zion, Fran Baldak EGUNKARIARI kontatu dienez. Horretarako telefono zenbaki bat (677268619) eman zion eta bere izena Jose Ferrin zela esan zion. "Presoen gaia ea konpontzen dugun" esan zioenez, Baldak erantzun zion horretarako ongi zekitelako norekin hitz behar zuten, horretarako espetxeetan dauden mintzaideekin hitz egin behar zutela. Solaskideak erantzun zion orduan "sentsibilitate ezberdinen berri" izan nahi zutela. Lehendakariatza Ministerioaren izenean ari zenak agerian utzi zuen Baldaren bizitza pribatuaren berri bazuela, giltzurrunarekin duen arazoak aipatu baitzion.